

Aroa Huarte

BEGI BAT ERRUSIAN



ERRUSIA, JOAN-ITZULIKO BIDEAN

“Arte Ederrak ikasi nituen, eta Errumaniara joan nintzen Erasmus beka batekin. Han izan nuen lehen kontaktua Europako ekialdeko mundu horrekin: hizkuntza ikasi nuen, eta hasi nintzen hizkuntzekin interesatzen. Gero, eslaviar filologia ikasten hasi nintzen Bartzelonan; ordurako errusiar literatura-rekin txunditua nengoen, Dostoievskiren *Krimen eta Zigorra* eleberriak eragin handia izan zuen nigan, eta liluratuta nengoen. Itzulpengintzan hasiberria naiz: aukera izan nuen Amaia Apaulazarekin batera Sergei Doblatoen *Filiala* (Katakarak, 2017) itzultzeko, eta pasa den urtean Txalapartak eskatu zidan Leninen *Estatua eta Iraultza* itzultzeko. Errusiak, gainera, zubi gisa balio izan dit beste kultura batzuetara iristeko, SESBeko errepublikak izandakoetara, adibidez. Eta musikara, artera, arkitekturara, zinemara... arlo askotan du Errusiak zer eskainia”.

“Oso bipolarra da Errusiarekin dugun harremana: edo oso errusiazalea zara, edo oso errusofobia”

Ikasle garaitik elikatu du Aroa Huartek (Leitza, 1984) Errusiarekiko eta hango kulturarekiko lilura. Eslaviar filologia ikasi ostean joan zen hara bizitzera, eta Euskal Herrira itzuli zenetik ere aritu da hanka bat hemen, begi bat han. Azkenaldian, itzulpengintzan bilatu du distantziak laburtzeko modua. Aleksandra Kollontairen ipuin bilduma bat euskaratu berritan erantzun ditu elkarrizketa honetako galderak.

 ANDER PEREZ  JOSU SANTESTEBAN

Nolatan Kollontai?

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretteen elkarteak [EIZIE] urtero antolatzen du *Literatura Unibertsala* bildumarako lehiaketa: irabazi egin nuen, eta urtebeteko epea izan dut liburua itzultzeko. Nik Kollontairen pertsonaia ezagutzen nuen, bere alderdi politiko eta feminista, baina literatura lanak ez nizkion ezagutzen. Baina lagina irakurri nuen, bere liburua irakurri nituen, eta interesgarria iruditu zitzaidan; eta orain, itzuli ondoren, eta harekin hainbeste denbora pasa ondoren, are interesgarriagoa.

Kollontaik zuzenean garamatza 1917ko Iraultzara. Baina sentsazioa da ez dela Kollontai bakarra, bide guztiak isurtzen direla han. Posible da Errusiaz hitz egitea hura aipatu gabe? Eta errusiar literaturaz?

1917ko Iraultza dena hankaz gora jarri eta mundu berri bat eraikitzeko saiakera handia eta benetakoa izan zen: utopia pila bat errealtatean gauzatu nahia izan zen, baita

literaturan ere. Noski, prozesu baten ondorio da, eta hura ulertzeko atzera joan behar da, 1905eko Iraultzara, eta XIX. mendeko mugimendu iraultzaile eta populistetara. Literaturan, XIX. mende bukaeran, urrezko aroa bizi izan zen Errusian, eta XX. mende hasierarako, Iraultza aurretik, baziren nahiko iraultzaileak ziren proposamenak. Iraultzaren testuinguru sozial eta politikoan, hori dena lehertu egiten da, baita literaturan ere.

Bada dioenik literaturak ere bultzatu zuela neurri batean iraultza bera.

Iraultza ez da sortzen bat-batean lider politiko batzuek iraultza egin behar dela erabakitzen dutelako; aurretik badago ongarri bat, arlo askotan zabaldua. Literaturan bezala artean: iraultza aurreko arte abangoardista izugarri apurtzailea izan zen. Literaturak eragina izan zuela? Segur aski bai. Errusian, literaturak pisuzko toki espezifikoak du gizartean, baita politikan ere. XIX. mende guztian, literatura izan zen pentsamendua zabaltzeko bide nagusia. Li-



"ERRUSIARRAK OSO KONTZIENTE DIRA HAIEN LITERATURAK DAUKAN PISUAZ, ETA HAIEN KULTURA ETA IDENTITATEAREN PARTE INPORTANTE BAT BEZALA BALORATZEN DUTE".

teratur lan batzuk izugarrizko pisua izan zuten jende askoren pentsaeran.

Eta gaur egun, zer pisu du Errusiako gizartearen?

Metroan jende pila bat ikusten duzu liburu bat irakurtzen, eta bigarren eskuko liburu azoka asko dago. Errusiarrak oso kontziente dira haien literaturak daukan pisuaz, eta haien kulturaren eta identitatearen parte garrantzitsu bezala baloratzen dute. Demagun, Espainiako literaturan eta hizkuntzan On Kixotek duela zentralitatea. Errusiarekin konparatuz, zentraltasun hori ezerezean gelditzen da. Han, Pushkin da poeta nazional nagusia, eta mundu guztiak daki poemaren bat errezitatzen. Fenomeno kuriosoak izaten dira: gazteen taberna batzuetan, ikus dezakezu bat-batean norbait modu espontaneoan mahai gainera igo eta poema bat errezitatzen.

Ez al du sentiberatasun artistiko horrek talka egiten askotan dugun Errusiaren irudi hotzarekin?

Oso bipolarra da Errusiarekin dugun harremana: edo oso errusiazalea zara, edo oso errusofoba. Estereotipoetan oina-

rritutako informazioa daukagu, jasotzen dugun informazio gehiena oso markatua da. AEBen kasuan, adibidez, badugu bereizteko gaitasuna: Trump ez dakit nolako agintari txoroa izango da, baina AEBetako kultura oso zabala eta anitza da, errealitate asko dago... Errusiaz, aldiz, oso gauza monolitikoa jasotzen dugu. Eta kristoren dibertsitatea dago, herrialde oso zabala da, kultura eta hizkuntza pilo bat dauzkana.

Filmeetan beti dira gaizto.

Askotan, txantxetan, pentsatzen dut zenbat pelikula amerikarretan ikusten ditugun *errrrusiarrak horrrrrrela* hitz egiten, oso modu hotz eta gogorrean, eta gero, hizkuntza entzutean, ze goxoa den. Izaeraz, egia da errusiarrak ez dutela irribarre errazik, eta agian hortik datorkie hotzaren estereotipo hori. Baina ezagutuz gero, oso herri abegikorra da, eta badu bere azalpena: halako herrialde hotz batean, pentsa ze klima baldintzetan, ezin zara abegikorra ez izan; norbaitek zure atea joz gero, derri-gor ireki behar diozu, bestela hil egingo da.

Gaur egun, zer toki du gurean errusiar kulturak?

Errusiar hizkuntzak, duen hiztun kopururako, oso toki txikia du gure inguruko hizkuntza ikasketetan. Iruñeko Hizkuntza Eskolan japoniera irakasten da, baina errusierarik ez. Bilboko Hizkuntza Eskola da toki ofizial bakarra. Ni, San Petersburgotik iritsi nintzenean, errusiar kulturarekin lotutako bide bat topatu nahian aritu nintzen, baina ohartu nintzen hemen ez zegoela aukerarik. Ez dut uste interes falta denik; interesa sortu daiteke.

Zer toki izan beharko luke?

Nahiko nuke toki handiagoa izatea. Badir horretarako saiakerak, *Literatura Unibertsala* bildumarena bada bat. Baina oso baldintzatuta gaude: zenbat milaka gauza interesgarri dago errusieratik euskarara ekartzeko? Dena egiteko dago. Eta, gaitasun handirik ez dugunez, normalean oso gauza kanonikoak ekartzen ditugu euskarara; baina gaur egun, bazterrean, badira kulturalki oso interesgarriak diren beste gauza batzuk ere, eta ez zaizkigu ailegatzen. Orain dela gutxi ekarri dute *Altres Rússies* (Victoria Lomasko) komikia katalanera, eta oso liburu interesgarria da Errusia ezagutzeko, eta zer dagoen han, Putinez aparte. ●